

## *Ainhoa Arregi Gaztañaga*

*Arrasate,  
Gipuzkoa  
(1976)*

Aurkibidea

**Biografia**



Arrasaten jaioa, kaletarra. Aita Arrasatekoa du eta ama 9 urte arte Aretxabaletan bizi izandakoa baina gerora Arrasaten. AEK-ko irakaslea da. Hitanoari buruzko elkarrizketa egin genion, Jon Azkoaga lagunarekin batera. Etxean jaso zuen hitanoa, amaren bitartez. Neba bat dauka, bera baino nagusiagoa, eta elkarrekin hika egiten dute. Arrasateko hika erakusteko ikastaro bat eman zuen Emakume Txokoan.

# Zintak

## ARR-198

- **Proiektua:** Arrasaten hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-05-06
- **Iraupena:** 120 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

## Pasarteak

### 1. Aitak zuka, amak hika eta anaiarekin orain hika

- **Erref:** ARR-198/008
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:13:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

#### Laburpena:

Aitak zuka egin izan dio; amak egin izan dio hika. Anaiarekin hasita dago hika egiten.

### 2. Amarekin praktikatu izan du hika

- **Erref:** ARR-198/009
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:13:27. **Bukatu:** 00:16:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

#### Laburpena:

Amarekin hika egin izan du eta hala ikasi. Elkarrizketa luzeetan zuka egiten dio amari, eta amak bietara. Ilobekin orokorrean zuka egiten du. Oso gutxirekin egiten du hika.

### 3. Noka ikastaroko esperientzia

- **Erref:** ARR-198/010
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:16:50. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

#### Laburpena:

Batzuekin hikak errazago irteten dio beste batzuekin baino. Noka ikastaroan parte hartu zuen eta nolakoa izan zen azaltzen du. Bigarreanean, bera izan zen irakasle.

#### 4. Hika sentimendu batekin lotzen du

- **Erref:** ARR-198/013
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:24:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Bestelako kontuak » Kentzekoa

##### **Laburpena:**

Hika sentimenduekin lotzen du berak, sustraiekin lotze bat. Ahaldundu egin behar izan da kalean noka egiteko.

#### 5. Kaleko esparrua gizonena gehiago izateak noka galarazi du

- **Erref:** ARR-198/014
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:24:51. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

##### **Laburpena:**

Noka toka baino gehiago zergatik galdu den azaltzen du.

#### 6. Berari hika egitea aldarrikatu izan du

- **Erref:** ARR-198/016
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:26:36. **Bukatu:** 00:27:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

##### **Laburpena:**

Noka egitea aldarrikapenetik ere sortu zaiola azaltzen du.

#### 7. Hika elkarrekin zela hasi ziren

- **Erref:** ARR-198/020
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:35:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

##### **Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

##### **Laburpena:**

Elkarrekin hika zela hasi ziren kontatzen dute eta hika egiteak zer dakarkien.

#### 8. Hika norbere buruarekin, praktikatzeko

- **Erref:** ARR-198/023
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:42:29

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Beraien buruarekin hika egiten dute batzuetan. Ainhoak hizkuntza askotan egiten dio bere buruari.

## 9. Euskaltegian euskalkia erakustea mugatuta dago

- **Erref:** ARR-198/024
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:42:29. **Bukatu:** 00:45:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

**Laburpena:**

AEKn formalki ez baina euskalkia lantzen dute batzuetan.

## 10. Arrasaten euskararen erabilerari buruz

- **Erref:** ARR-198/026
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:48:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Euskara desagertzeaz egon zenez, nahikoa egin dutela uste du Jonek. Hizkerak eta hizkuntzak oso nahastuta erabiltzen direla uste du Ainhoak. Jonek identitate kolektiboa galtzea euskararen galera eragiten ari dela uste du.

## 11. Agurainen eta Arrasateren arteko aldea

- **Erref:** ARR-198/028
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:52:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Agurainen bizi izan duena Arrasateko egoerarekin alderatzen du Ainhoak. Batzuentzat euskara identitatea da baina beste batzuentzat eskolako kontua.

## 12. Teknologia berrietan erdararen erauntsia dago

- **Erref:** ARR-198/029
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:54:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Jonen ustez euskararena arazo politikoa da. Mugikorreko erreferentzia guztiak erdaldunak direla azaltzen du. Ainhoak uste du lan handia egiten ari direla teknologia berrietan euskara erabiltzeko baina zaila dela.

**13. Erdara nagusi da Arrasaten**

- **Erref:** ARR-198/030
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:54:42. **Bukatu:** 00:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Arrasateara etorrita, pakistandarrek gaztelera hitz egiten dute; beraz, Jonek dio horrek esan nahi duela Arrasateko hizkuntza nagusia gaztelera dela. Hika aritzea aldarrikapen moduan bizi du Jonek.

**14. Norbere baitan toka aritzeaz**

- **Erref:** ARR-198/032
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 01:00:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Jonek txakurrari hika egiten dio, toka. Ainhoak bere buruari toka egin izan dio; zergatia ez dauka oso argi.

**15. Berorika besoetako umeari, zuka ume txikiari, hika koxkortutakoari**

- **Erref:** ARR-198/034
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:00:54. **Bukatu:** 01:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak

**Laburpena:**

Ainhoak besoetako umeari esaldi batzuk berorika egin izan dizkiola aipatzen du.

**16. Hika egiten duen bikote nagusia**

- **Erref:** ARR-198/035
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:03:11. **Bukatu:** 01:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Jonek ezagutzen du bikote nagusi bat elkarrekin hika egiten duena.

**17. Ezkondutakoan zuka; semeari hika, alabari zuka**

- **Erref:** ARR-198/037
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:04:55. **Bukatu:** 01:07:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Azkoitiko kasu bat aipatzen du, ezkondutakoan hika egitetik zukara pasatu zena, eta ohartu. Semeari hika eta alabari zuka egitea ohikoa izan da.

**18. Hikaren inguruko jarrerak**

- **Erref:** ARR-198/038
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:07:59. **Bukatu:** 01:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Hikaren aldeko jarrerak entzun izan dituzte.

**19. Helduago bati hika egitea zail**

- **Erref:** ARR-198/040
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:10:28. **Bukatu:** 01:11:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Helduago bati hika egitea deseroso zaio.

**20. Hika aritzeko, ahalegina egin behar**

- **Erref:** ARR-198/042
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 01:12:37. **Bukatu:** 01:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Hika egiterakoan, gehiago pentsatu behar izaten dute, aditzak topatzeko.

**21. Emakumeen ahalduntzea eta hitanoa batuta**

- **Erref:** ARR-198/044
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 01:15:57. **Bukatu:** 01:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena:**

Emakumeen ahalduntzea eta hika uztartzeari buruz ari da.

**22. Hika-zuka elkarrizketei eustea gaitza**

- **Erref:** ARR-198/047
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 01:23:33. **Bukatu:** 01:25:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Batak hika eta besteak zuka ez dira sarri aritzen, eustea zaila delako.

**23. Hitanoaren galerak pena**

- **Erref:** ARR-198/048
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 01:25:25. **Bukatu:** 01:28:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Hikaren galerak pena ematen die. Berbak ere galdu egin direla diote.

**24. Euskalkirik ez dutenek, informalaren falta**

- **Erref:** ARR-198/049
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 01:28:41. **Bukatu:** 01:30:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena:**

Hizkera informalari buruzko gogoetak.

## 25. Garai bateko emakumeen bizimodua

- **Erref:** ARR-198/053
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:36:01. **Bukatu:** 01:38:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

### Laburpena:

Lehenagoko emakumeen bizimoduari buruz ari dira.

## 26. Gustoko idazleak eta musika

- **Erref:** ARR-198/055
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 01:39:14. **Bukatu:** 01:44:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

### Laburpena:

Gustoko dituzten idazle eta musikariak aipatzen dituzte.

## 27. Militantzia zela aldatu den

- **Erref:** ARR-198/057
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 01:45:31. **Bukatu:** 01:48:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

### Laburpena:

Garai batean militantziak esparru zabala hartzen zuen. Gaur egun, ordainpean egiten dira zeregin asko. Belaunaldi gazteei dena eraikita eman zaiela uste dute eta horrek zaildu egiten duela ekimena.

## 28. Baserritarra izatearren, burla

- **Erref:** ARR-198/063
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:57:49. **Bukatu:** 01:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

### Laburpena:

Joni "kaxero" esan izan diote, baserritarra izateagatik. Ainhoak amari mina eta amorrua nabaritu izan dio gaiaz berba egiterakoan.



**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com